

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko irailaren 12tik 18rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/09/16

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/851/2020 Agindua, irailaren 14koa, uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua luzatzen duena. Horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, irizpideak aldatzen dira hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengeni lotutako herrialdeetara nahitaezkoak ez diren bidaiak galarazteko behin-behineko murrizketa ezartzeko, ordena publikoaren arloko arrazoiengatik. **2020-10726 xedapena - 2 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Industria-kalitatea eta -segurtasuna.** – Akats zuzenketa, honako Errege Dekretu honena: 542/2020 Errege Dekretua, maiatzaren 26koa, industria-kalitate eta -segurtasunaren arloko hainbat xedapen aldatzen eta indargabetzen dituena. **2020-10727 xedapena - 1 or.**

2020/09/17

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Datuen erabilera. Terrorismoa eta beste delitu larri batzuk.** - 1/2020 Lege Organikoa, irailaren 16koa, Bidaiarien Izenen Erregistroko datuak erabiltzeari buruzkoa, terrorismo delituak eta delitu larriak prebenitzeko, atzemateko, ikertzeko eta auzitaratzeko. **2020-10776 xedapena - 21 or.**
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Euskal Autonomia Erkidegoa. Hitzarmena.** – Ebazpena, 2020ko irailaren 8koa, Idazkaritza Nagusi Teknikoarena, zeinaren bidez argitaratzen den Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioaren administrazio-kudeaketarako. **2020-10823 xedapena - 12 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/09/14

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 7/2020 FORU DEKRETU-ARAU, abuztuaren 13koa, UEFAko Emakumezkoen Txapelaren 2020ko Ligaren amaierako fasearen araubide fiskala erregulatzen duena. **3623 xedapena - 3 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/09/16

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, irailaren 8koa. Onespena ematea Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketari, COVID-19aren ondorioz. **2557 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/09/17

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 83/2020 FORU DEKRETUA, irailaren 8koa. Honen bidez, UEFA Euro 2020 txapelketaren azken fasearen araubide fiskalaren indarraldia luzatzen da. **567 xedapena - 2 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/09/17

- Akats zuzenketa, honako Erregelamendu honena: 2020/560 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2020ko apirilaren 23koa, erregelamendu hauek aldatzen dituen: 508/2014 (EB) Erregelamendua eta 1379/2013 (EB) Erregelamendua, arrantzaren eta akuikulturaren alorrean COVID-19aren agerraldiaren eragina arintzeko neurri zehatzei dagokienez (DO L 130, 2020-04-24koa. **14 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO